



Gipuzkoako Garraioaren
Lurralde Agintaritza
Autoridad Territorial del
Errenferriko Lurralde de Gipuzkoa



Ayuntamiento de Errenteria



Errenteriako Udala

Egun honetako Alkatetza Aprobado por Resolución
ebazpena bidez onartuta. de Alcaldía en esta fecha.

Zkia./ Número 1221 Data / Fecha 2018/07/08

IDAZKARIA / LA SECRETARIA

**LANKIDETZA HITZARMENA, GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE
AGINTARITZA PARTZUERGOAREN ETA ERRENTERIAKO UDALAREN
ARTEKOA, MUGI TXARTELAREN ESKAEREN KUDEAKETA
GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAREN GARRAIO PUBLIKO
KOLEKTIBOKO TARIFA BATERATZE SISTEMAREN BAITAN.**

Donostian, 2018ko maiatzaren 8an.

BILDUAK:

Alde batetik, Maria Soledad Garmendia Beloqui, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde-
Agintaritza Partzuergoaren Lehendakari moduan.

Eta, beste aldetik Eñaut Gracia Ibarra jauna, Errenteriako Udaleko Informazio-
Gizartearen eta Herritarren Parte-hartzea azpisaileko zinegotzi-ordezkarria, udal
horren ordezkarri gisa maiatzaren 8ko datako alkatetzak emandako ebazpenaren
bidez hartarako ahalmenaz.

Alderdi bakoitzak bestearen parte-hartze izaera aitortzen du hala nola Lankidetza
Hitzarmen hau sinatzeko adina gaitasun legala onartzen diote elkarri, eta ondorio
horretarako

ADIERAZTEN DUTE:

- I. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoa kide hauek osatutako erakundea dela: Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, eta Donostiako, Irungo, Errenteriako, Eibarko, Arrasateko, Zarauzko, Hernaniko, eta Lasarte-Oriako Udalak. Haren helburua da Lurralde Historiko guztia bateratzea, garraio-eredu iraunkor baten bitartez, eta herri-administrazioek mugikortasunaren arloan dituzten helburuak betetzen laguntzea. Haren betekizuna da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren herritarrek mugikortasun irisgarria eta kalitatezkoa izan dezaten sustatzea.
- II. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoaren xedea eta helburuak besteren artean Partzuergoaren estatutuen 5. artikuluan ezarritakoak direla:



- a) Jarduera hauetan laguntzea: garraioaren antolamendu-politikak definitzea; garraioaren politika bateratua koordinatzea; garraio-mota ezberdinak planifikatzea; garraio-politikak lurralde-orekari eta, orokorrean, garapen iraunkorrari egokitzea; eta garraioaren arloan erkidegoaren politikak ezartzea eta egikaritzea.
- b) Garraio-arloetan eskumena daukaten erakundeek ahalmen publikoen jardura koordinatua sustatzea eta erraztea, administrazioen arteko lankidetzak nork bere egitea, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan garraio-politiken inguruko interes ezberdinak bateratzea.
- c) Zerbitzuen, sareen eta tarifen koordinazioa sustatzea, eta erabiltzaileei eskaintza hobea egitea, garraioaren erabilera areagotzeko eta sustatzeko helburu bakarrarekin.
- d) Garraio-sare bakarra eta integrala sustatzea.
- e) Garraio arrazionalagoa eta eraginkorragoa sustatzea garapen iraunkorraren aspektu sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak integratzearen bidez.
- f) Baliabide publikoak eta pribatuak optimizatzea garraio-bide ezberdinen elkarrengarritasuna sustatzeko eta Europako garraio sisteman sartzeko.

III. Partzuergoaren Estatutuetan adierazitako xede eta helburu instituzionalekin bat, GGLAK 2013ko martxoaren 4an Tarifa Sistema Bateratua edo MUGI Sistema ezarri eta harrezkero kudeatzen du. Hori guztia garraio publikoko zerbitzuaren eskaintzan hobekuntzak ezartzeko eta eskaintzeko xedez.

MUGI sistemak tarifa bakarraren politika garatu du Gipuzkoako hiri-garraioan (Donostiako, Irungo, Errenterriako, Eibarko, eta Zarauzko, Arrasateko, Hernaniko eta Lasarte-Oriako hiri-autobusetan), hirarteko autobus zerbitzuetan (Lurraldebusen 7 operadore), Eusko Trenbideen tren zerbitzuetan eta taxibus zerbitzuetan. Hori guztia ordainketa euskarri bakar baten bidez :MUGI txartela.

Mugi sistemak, halaber, posible egin du txartel berarekin Gasteizko eta Bilboko tranbietako bidaiak ordaintzea, baita Oiartzungo hiri-autobusetan eta Renfe operadorearen Donostiako aldiriko trenetan bidaiak ordaintzea.

MUGI sistema bere osotasunean kudeatzen da GGLAK, bereganatuz prozesuan sartzen den guztia besteren artean, txartelak erosi, horien eskaerak kudeatu, txartelak pertsonalizatu eta eskatzaileei bidali. Aldi



Errenterriko Udala

berean txartelen errekarga era ezberdinetik, erabiltzaileei arreta eskaini eta, azkenik, sistemara atxikitutako garraio operadoreei, egindako bidaien arabera, diru-sarrereren kitapena egin.

Herritarren eskura jarriko den tarifa-integraziorako sistemaren euskarri fisikoa funtsean txartel adimendun bat da. Txartela kontakturik gabe baliogabe daiteke da garraiobide ezberdinetan, eta titularrak erabili aurretik saldo berria kargatuz gero, berrerabil dezake.

- IV.** Gaur egun, 500.000 MUGI eta Lurraldebus txartel baino gehiago daudela Gipuzkoako Lurralde Historikoan zein inguruko lurraldeetan zehar, eta 400 salmenta-puntu baino gehiago erabiltzen dituztela kargak egiteko, hala nola estankoak eta liburu-dendak, KUTXABANKen kutxazain-sarea, hainbat udaletxe, turismo-bulegoak, posta-bulegoak, PESA leihatilak eta kargatze-makinak eta EUSKOTREN-eko makina-emaileak.

Errenterriko Udalaren eta Partzuergoaren helburuen artean daude erakundeen arteko lankidetzak erlazioak sendotzea eta Administrazioaren modernizazio, arrazionalizazio eta hobekuntza bultzatzea, batetik baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra bilatzen, eta, bestetik, hiritarrari zerbitzu hobetua eskaintzen.

- VI.** Data honetan, sinatzaileek interesa dute hitzarmen hau sinatzeko, Errenterriko Herritarren Arreta Zerbitzuan, MUGI eta Lurraldebus txartelen eskaerak kudeatzeko baldintzak ezartzeko asmoz, Gipuzkoako garraio publikoaren tarifa batera sistemaren esparruan.

- VII.** Hitzarmen hau sinatzeak dakar kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzea eta zerbitzu publikoaren erabilera era bateratuan erraztea.

- VIII.** Hitzarmen hau sinatzeak ez du Errenterriko Udalari inongo gasturik ekarriko (pertsonal-gastuari buruzko estipulazioaren ondoriozkoak izan ezik) eta GGLA Partzuergoak hitzarmena indarrean dagoen bitartean hartarako hartutako konpromisoak finantzatzeko ahalmena duela, bere aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa izanez.

- IX.** Aipatutako arrazoiak kontuan hartuta, eta alderdi parte-hartzaileek, ondorio horretarako izandako bileren ostean, Errenterriko Udalak eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoak, hitzarmen hau sinatzeko interesa dute bertan ezarriz Mugi txartelen eskaeren kudeaketa, Gipuzkoako Tarifa Bateratze sistemaren esparruan, eta horretarako, aipatutako helburuak bete eta formalizatzeko asmotan Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 47.artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, ados jarrita, ondorengo



Lankidetzako Hitzarmena sinatzen dute (aurrerantzean, Hitzarmena),
hurrengo estipulazioei jarraituz

ESTIPULAZIOAK

LEHENENGOA.- Hitzarmenaren helburua da Errenterriko herritarrei ahalbidetzea Errenterriko Udalaren Herritarren Arreta emateko zerbitzuan «ZU! Zure Udala», MUGI txartelaren eskaerak bideratzea.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoak honoko konpromezua hartzen du:

- a) Errenterriko Udalari Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tarifa Sistema Bateratuko, hau da Mugi sistemari, hasierako formakuntza eskaintzea.
- b) Errenterriko Udalari Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tarifa Integrazio Sistemaren gaineko informazio tresnak erraztea herritarrei egoki informatzeko.
- c) Errenterriko Udalari Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tarifa Integrazio Sistemaren gainean beharrezkoa den laguntza teknikoa eta lankidetzak eskaintzea. Horien artean ATTGko datafono propioa utziko dio Errenterriko udalari MUGI txartelaren prezioa kobratu ahal izateko herritarri.
- d) Errenterriko Udaletik aldizka pasatzea (GGLaren kontratistaren langileak) «ZU! Zure Udala», Errenterriko Arreta Zerbitzuan aurkezten diren MUGI txartel berrien eskaerak jasotzera.

HIRUGARRENA.- Errenterriko Udalak ondoren zehazten diren konpromezuak hartzen ditu:

- a) «ZU! Zure Udala», Errenterriko Arreta Zerbitzuan MUGI txartelaren eskaerak onartzea, kasuan kasu dagokien agiriekin.
- b) MUGI txartela eskuratzeko beharrezkoa den zenbatekoaren kobrantza.
- c) Udalaren erregistroan eskaerak sarrerak jasota geratzea.
- d) MUGI txartelaren eskaerak kudeatzea. «ZU! Zure Udala», Errenterriko Arreta Zerbitzuan jasotako eskaeren bila pasako dira GGLA Partzuergoak Mugi txartelen eskaeren kudeaketa eta karga sarea lanetarako kontratatuta duen enpresaren langileak.



LAUGARRENA.- Bi alderdiek MUGI txartelaren eskaeraren kudeaketak sortarazitako intzidentziak elkarri jakinarazteko konpromezua hartzen dute.

BOSGARRENA.- Hitzarmen honek ez du ekarriko parte hartzaile bakoitzaren eskumenen aldaketarik ezta horiei uko egiteari ere, solik hitzarmenean hartutako konpromisoen erantzukizuna izango dute.

SEIGARRENA Hitzarmena desagitea

Hitzarmena hurrengo arrazoietakoren bat dela medio desagingo da:

- a) Indarraldia bukatzean.
- b) Alderdien arteko berariazko akordioagatik;
- c) alderdietako edozeinek egindako salaketagatik; beste alderdiak hitzarmenean onartutako obligazioak ez dituela betetzen uste izateagatik, hertsiki betetzea exijitzeko ekintza lehentasunezkoa izanik.
- d) Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza desagiteagatik.

Zazpigarrena.- Hitzarmena indarrean sartzea eta horren iraupena

- 1) Hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatu eta hurrengo egunetik aurrera, eta hasiera batean urtebeteko iraupena izango du.
- 2) Hasierako indarraldia amaituta, hitzarmen hau urtero luzatuko da, eta gehienez ere 4 urte iraun ditzake osotara, luzapenak barne

ZORTZIGARRENA.- Erregimen juridikoa

Hitzarmenak izaera administratiboa dauka eta beraz, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako erregimena aplikatuko zaio.

Eta agiri honetan ezarritakoarekin bat datozela erakusteko, bertaratutakoek Lankidetzako Hitzarmen hau sinatzen dute, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde
Agintaritza Partzuergoaren Lehendakaria

Gipuzkoako Garraioaren | Autoridad Territorial del
Lurralde Agintaritza | Transporte de Gipuzkoa
20006 Donostia, San Sebastián
MARIA SOLEDAD GARMENDIA BEYOQUI

Errenterriko Udaleko Informazio-
Gizartearen eta Herritarren Parte-
hartzea azpisaileko zinegotzi-ordezkarria

EÑAUT GRACIA IBARRA

